

Aiherra

Herria du 1 decem bre 2011

Heriotze - Buztingorriko Beonika St Jean joan den astean zendu da : 100 urteak duela zontbeit hilabete ospatuak zituen. Matin semea hilez geroz, alaba baten etxera erretiratu zuten.

Beonika zenaren ehorzketak ortzegun arratsaldean iragan dira Aiherrako elizan. Gure doluminak Léonie, Odeta, Mayi eta Jeanine 4 alaberi eta hauen familieri.

Heriotze - Igandean, beste herritar bat zendu zauku : Fernande Mirande Londaitz-beherekoa. Hau, aski gaztea, 73 urte baizik ez baitzuten. Debrien hutsa izanen dute Londaitz-behereko J-Pierre anaia eta Rose-Marie koinatek. Azken denborak eritegietan iragan ditu. Emazte ona, nehoi minik egiten ez zuenaren orroitzapena uzten dauku. Fernande zenaren ehorzketak asteartean iragan dira, Aiherrako elizan. Gure dolumin bizienak familia eta ahaidegoari.

Telethon, helduden asteondarrea

Asteburu huntan mugimendu asko izan behar ginuke, hemen gairi ekitaldi andana bat antolatzen baitute, bai Hazparnen eta bai Bastida aldean. Horien artean, urte guziz egiten duten bezala, odolgi prestatze eta afari Bastidan, bai eta gau ta eguneko ibilaldia Hazparneko kirol zelaian, lasterka eta batzu oinez. Talde edo multxo bakotzak, oren bat beren gain hartzen dute, eta bixtan da nahi den emaitza eskaintzen ahal. Goizeko 5etan, Aihertar lasterkari edo oinezkari batzuek larunbatean beren aldia segurtatuko dute. Elgarretaratzea, 5 minuta lehenago Hazparneko igeritegi aitzinean. Nornahik parte hartzen ahal baitu ekitaldi huntan, goixkara jeikitze indar egiten duenaz geroz, ongi etorri goixtiar guzietari !

Aiherra

Herria du 8 decem bre 2011

Teleton hemen gairi - Joan den asteburuan izan da mugimendu Teleton-en karietarat, bereziki Hazparne eta Bastidan. Zernahi animazione, 2 herri hauetan. Horien artean, urte guziz egiten duten bezala, odolgi prestatze, sailze edo afari Bastidan, bai eta gau ta eguneko ibilaldia Hazparneko kirol zelaian, lasterka eta batzu oinez. Talde edo multxo bakotzak, oren bat beren gain hartzen dute, eta bixtan da nahi den emaitza eskaintzen. Goizeko 5tan, Aihertar lasterkari batzuek, larunbat goizean, beren aldia segurtatu dute. Gisa huntako elgarretaratzeak, eritasun larri horientzat artatze berezi

Musikari batzu saristatuak - Esku-soinularien eta piano joileen lehiaketa joan den martxoan iragan zen gure herrian, denen etxean. Ondorioz 6 ikasle sailkatu ziren urriaren 25, 26 eta 27an iragan diren finaletan parte hartzeko, Parisen.

Ondoko hauek sari bana eraman dute : Michelle Narp, Alicia Rocchia, Jean Meunier, Justine Irigoien, Thérèse Bignolles eta Alice Olçomendy. Hauen erakaslea, Patricia Arhancet, pozik dago.

60 urtekoen elgarretaratzea - Joan den larunbatean, 60 urteko herritar edo herritartuek, elgarretaratze bat an-



60 urteko Aihertarrak, bazkari ondoan

batzuen hatxemanaratzeko beharrezkoak direla ez da dudarik !

3. adinekoen biltzar nagusia, Abenduaren 20an - « Goiti Aire » deitu 3. adinekoen elkarteak, bere urteko biltzar nagusia, Abenduaren 20an asteartekin eginen du "Attatea" ostatuan. Kide guziki gomiti dira, eta ere partaide ez diren 3. adinekoak, esperantzarekin haatik laster sartuko direla elkartearen.

Hunatan nola pasatuko den biltzara : 10 :30tan urte sari biltzea, ondotik, Biltzar nagusia : urteko harat hunatan berri, diru konduak, kontseiluko kideen arraberritze eta bertze gaiak. Biltzarretik landa, denak gomiti dira bazkari on baten hartzera. Haatik, abenduaren 13ko behar da tokia erre-erbatu, J- Pierre Sainte Marie Xedarrakoa deituz, 05 59 29 64 51 telefona zenbakira. Ongi etorri guzietari !!

tolatu dute, mahain on baten inguruan bilduz, eguerditan, Auxotean. Orotara 17 ziren, gehienak orain Aiherran bizi direnak, azkenik etorriak direlarik Herrixola-ra Suzan Manquin eta hunen senarra. Herritik kanpo joan direnatarik, bakarrik etorri da Jeanine Larre, Mendiburuan sortia.

Arras goxoki iragan dute eguna, eta segur berriz elgarri biltzea hitzeman dute.

T4 bat saltzeko - Berrikitan, herriko etxeak eraiki « Mariñeldea » etxe biltzetan, bat badago saltzekoa, 195 000 €tan, T4 bat. 83 m2 egiten ditu, Terraza bat, garajea eta baratzetipi batekin. Hastapenean, alokaliribat pagatuz, emeki emeki bizitegi jabegora heltzen ahal da eroslea. 15 urtez, ez da lur zergarik pagatzen. Xehetasunentzat, deitu Herriko Etxea, idekia den tenoretan, 05 59 29 64 02 telefona zenbakira.

Aiherra

Herria du 15 decembre 2011

Finalerdietan galdut

Joan den larunbat arratsean, Itsasuko trinketea, Bixente Oyhenart herritarra eta Alain Heguiahahere, Euskal-Herriko xapelketaren finalerdietan ari ziren, Biarritzeko BAC pilota batasunaren kondu, Irisarriko René Muscarditz eta Julien Arbeletcheren aurka. Partida eder bat eginik, 40-36 galdut dute. Muscarditzek 7 bote sartu ditu, eta Bixentek 6. Forma gaitzean eta indartsu dugu herritar pilotaria. Segi dezala oraino luzaz !

Bozkatzaile gazteentzat abisu : eman izena abenduaren 31 aitzin

2012 urtea, bozka urtea ! Alabainan, lehendakari bozak apirilaren 22an eta maiatzaren 6an ditugu, eta lege biltzarrekoak ekainaren 10ean eta 17an. Bozkatzekotz, zerrendetan sartu behar da. Nor-tasun ageriarekin, Herriko Etxera joaitea galdatua da, abenduaren 31 aitzin.

Harrobi zaharra erosi

Berrikitan, Herriko Etxeak herri erdian aurkitzen den harrobi zaharra, 24.000 euroren truk erosi du. Eremuak 3 hektara eta 100 bat ara egiten ditu. Kontseilu nagusiaren

aholkua segituz, Etxarteko Jean-René Garrari, ondoan den eta hektara bat eta 100 ara egiten dituen lur peza bat erosi nahi lukete, azken hondakinen hor biltzeko eta sailkatzeko. Berdin eguzki energiaren biltzeko panoak lurrean ezar lezazkete, eta ondoan karabanen aparkaleku bat egin.

Tokiko hirigintza planoan

Azken kontseiluko bilkuran, jaun auzapezak jakinarazi du herritar batzuek beren lurren sailkatzea galdatzen dutela, etxan eraikitzeo baimena ukaiteko gisan. Lur zati horiek, herri erdi eta Apairi auzogunetik kanpo gelditzen direnaz gain, tokiko hirigintza planoan egin hautuaren arabera, ez dute etxan eraikitzeo baimenik ukanen. Herri erdiaren berpiztea helburutzat hartuz, araberako norabideak hartu dituzte, etxan eraikitzeak herri erdian eta Apairi kartierean mugatuz.

Eguberriko kantu errepika

Parropiako kantoreak Eguberri arratseko mezan parte hartuko baitu, azken errepika, meza aitzin, larunbat arratsean, abenduaren 24ean, 7ak ¼ gutitan eginen du. Kantariak jin ditela tenoreko !

Aiherra

Herria du 22 decembre 2011

Urtearen alai bururatzeko, Denen Etxean 2 antzerki

Aiherra
Antzerki gaualdia

Abenduaren 30ean ostiralez
Denen-Etxea 20:30etan

MAKEAKO "JOSTAKIN" taldea

Haurren antzerkia
TURNE MANEX

Gasteen antzerkia
SAGA IKASTOLA

TRIKERO taldeak ostatua alaituko du

Manera berezi batez bururatuko dugu 2011 urtea, Aiherran. Belzuntze elkarteak antzerki gaualdi bat proposatzen baitaiku, abenduaren 30ean, ostiral arratsarekin, 8ak 1/2tan, Aiherrako Denen etxean. Irri egitea maite dutenek, batez ere Pantzo Irigaray-en umorea ezagu-

tzen dutenek, ez dituzte gaualdi berean proposatzen dauziguten 2 antzerkiak hutsegin behar. Makeako Jostakin taldeak 2 antzerki emaiten baititu aurtan, haurrekin "Turne Manex" eta gazteekin "Saga Ikastola", hauen ikusteko parada izanen dugu beraz gure herrian. Makeako pestetan lehen aldikotz eman zituzten 2 antzerki hauek. Geroztik eskuin eta ezker ibiliak baldin badira antzerkilari gazte hauek, hemen gairi ez ditugu oraino ikusiak. Gaualdia, arratseko 8ak 1/2tan hasiko da. Hobe beraz aski goiz jitea. Aitzin eta ondotik, "Trikero" taldeak ostatua alaituko du. Belzuntze elkartearen partez, ongi etorri deneri !

Eguberri, elizkizunak

Igandean Eguberri izanez, lehen deitzen ginuen bezperako gauerdiko meza, ibiakoitzean Aiherran dugu ukanen, arratseko 7ak eta 1/2tan. Kantoreak parte hartuko du, eta kantariak 7ak 1/4tan dute hitzordua, errepika batentzat. Biharamunean, Izuritzeo elizan, 10ak 1/2tan.